

Lakua, 2015-01-29

Informazio orriari ekin baino lehen, esan beharra dago joan ohi garen bileretan sailak aldeztu aurretik erabakita izaten duela bukaeran nahi duena. Alferrik da modu batez esan, edo bestela esan. Nahi duten bakarria da sindikatuok administrazioari mandatari lana egitea. Negoziazioa trikimailu hutsa da.

2015eko EPEa ETA BJB BARAKALDON

157 plazak osatzen dute eskaintza, barne sustapenaren eta txanda askearen artean banatzekoak. Kidegoka hauexek dira kopuruak: 30 laguntzaile (txanda askea besterik ez); 88 izapidegile; 34 kudeatzaile; eta 5 auzitegiko mediku. Dirudienek, Eusko Jaurlaritza saiatu zen bereganatzen beste erkidegoek atera behar ez zituzten plazak, baina Ministerioak ezetz erantzun zuen.

Lehenengo biderrez informatu gaitu sailak BJB ezarrita plaza guztiak bete gabeko bihurtzen direla, lanpostu berriak baitira eta esan zuten horixe pasatuko dela Barakaldon. Legeak egun bereizten dituen arren bete gabekoak eta plaza hutsak, EPEa ateratzean antzinako irizpidea erabiltzen dute: bete gabeko plazak barne sustapenerako eta plaza hutsak (lekualdatze lehiaketan eskainiak edo lehiaketaren ondorioz sortutakoak, ezein titularrek hartu ez duenak) txanda askerako.

Esana genuen legez, ez dituzte eskainiko Barakaldoko plazak lekualdatze lehiaketan. Bigarren urtez izorrratu behar dira langileak BJBren kulpaz. Gogoan hartu Gasteizen gertatu zena.

Barakaldoko BJBren harira, ezinezkoa omen da idazkarien LPZa argitaratzea aurreikusitako datan. Antza denez, Barakaldon plaza bat gehiago sartu nahi dute eta horrek atzeratu egingo du argitaratzea. Hori horrela izango zela jakitun, JAZk bazuen bere esku Barakaldoko bete gabeko plazak eskaintzea EPEko barne sustapenerako, baina ez du nahi izan. Hortaz, lekualdatze lehiaketan -bigarren urtez- Barakaldoko plazarik ez ateratzea ez ezik, JAZk mailaz igotzeko aukerak urritzen ditu 2015erako.

2015eko LAN EGUTEGIA

Sailaren jarrera ezin zurrunagoa da: murrizketen aurreko egutegiari ezez borobila esaten dio behin eta berriro. Horiek horrela, aurton 1577 ordu lan egingo dugu, 2012 urtea baino lehen zegozkigun 1547en aldean; horrek lau egun gutxiago dakar. Lau egun horiek osteaz gain, beste kontu batzuk ere kontrolatzen ari dira, seme-alabak zaintzeko lanaldi murriztuak, besteak beste. Duela gutxi arte baimentzen bazuten ere, gaur egun debekatu dute ordu malgutasuna horrelako lanaldietan. Administrazio Orokorrean, funtzionario zein lan-kontratupeko homologatuek badute malgutasuna lanaldi murriztuetan ere, baina langile ez homologatuei ukatzen diete.

Kontu horren harira, LABek errepikatu zuen homologaziorako aukera dagokigula eta, zuzendariari esan bezala, hori eskaini ezean ezin diezaguke uka eskubiderik. Kontziliazioarekin eta lanaldi murriztuarekin ez da jolasean ibili behar; horrelakoetara jotzen duenak benetan behar duelako izaten da. Ez dago zertan inori gogorarazi lanaldi murriztuek berez darkartela lansari murrizketa, beraz, guztiz bidegabea da lan egoera areago kaskartzea. Bada, Uriartek ez zuen duda izpirik: ez du inolako asmorik hori aldatzeko.

lazko bezalakoa da aurtengo lan egutegia: **norberaren kontuetarako 5 egun eta 9 egun eta 5:30 minutu gehiegizko ordu gisa**. Nobedade zaharra: 5:30 ordu horiek osatuz gero 10. eguna hartzeko aukera itzuli digute. Kontuz, baina. 5:30 ordu baino gutxiago izatekotan aukera bakarra ordutegi malgutik kentzea da. Jakizue Jaurlaritzako langileek orduak deskontatu, egunka disfrutatzeko ordu soberakinak batu, urte batetik besterako egunak gainezarri... Justizia Administraizoa, baina, ukatzen dizkigute horiek guztiak homologaturiko langileak ez garen aitzakian, behin eta berriro. LABek aurpegiratu zion zuzendariari berak ez duelako nahi ez garelako homologatuak. Egutegiari buruz egin ditugun eskaera denak ez ditugu hona ekarriko, bakar batean esan daitezke eta: Administrazio Orokorrekoen egutegi berdina nahi dugu.

GASTEIZ: ERREFORTZUAK

Pertsonal buru Begoña Otazuak komentatu zuen ez dela normala erkidego osorako esleitutako errefortzuen erdiak Gasteizen egotea. Errefortzu batzuk kendu behar dituzte, hortaz. Zerbitzu Erkide Orokor eta Betearazpenekoa jarri zuen adibidetzat eta horko langileak ba omen daude abisatuta. Gainerakoekin Idazkari Koordinatzailearen txostenen arabera jokatuko dute. Bide batez, kexu agertu zen txosten horietako batzuetan lan bolumena, besterik ez dela jasotzen. JAZk uste du, zenbaitetan, errefortzu beharra zerbitzua ez egoki antolatzeak dakarrela.

AUZITEGIKO MEDIKUAK

Sindikatu guztiek geure egin genuen, parekotasuna lortzea helburu harturik, auzitegiko medikuek egindako proposamena. LABek bi gauzetaz ohartarazi zion sailari agiria ematerakoan: bata, ez ematea bukatutzat negoziazioa, ohi duten bezala, kontu honekin jarraitu nahi dugulako; bestea, proposamena aintzat hartu ezean, Eusko Legebiltzarrean bertan auzitegiko medikuak parekatuko zituela esan zuenarekin (Josu Erkoreka) biltzeko eskubidea ez dugula baztertzen. Bada, ederto, besterik ez zuen erantzun.

2012ko APARTEKO PAGA OSTUA

Enegarrenez exijitu zion LABek sailari agindutakoa betetzeko, paga osoa ordaintzeko. Ordaintzera doazena legeak behartzen duena dela esan zuten, % 20 gutxi gorabehera, eta apirilean izango omen da.

Badakigu norberaren izenean egindako erreklamazioak egin direna, ondokoan oinarri hartuta: 2012ko paga Justizia Administrazioan kentzea baimentzen zuen BJLOren aldaketa derrigorrezkoa urte hartako abenduaren azken egunetan argitaratu zuten. Oso litekeena da errekurtsio horiek

langileen aldekoak izatea, justiziakoa eta nabaria baita. Hori horrela izanik, JAZk aprobetxatuko du eta beste motibo bat bilatu gu ezberdinak garelara aurpegiatzeko. LABek ez du nahi Jaurlaritzako beste langileengandik bereiztea; horregatik exijitzen dugu 2012ko aparteko lansari hori osorik pagatzea -txiki-txikia izanik ere, ezein tarterik salbuetsi gabe- eta EAEko aurrekontuen menpeko langile guzti-guztiei ordaitzea.

7. HILETIK GORAKO LEI DELA ETA, ERREKLAMAZIOAK

Berriro esan genien eragindako pertsoneri ordaintzeko garaia dela. Laster izango dela esan zuten. Jakina denez, kentzeko arineketan ibili bai, baina dirua itzultzeko motel: ordainketa ziurtatuta egonik, ez omen dauka presarik kobratzeak.

KUDEATZAILE ARDURADUNAK

JAZk ez du nahi, oraingoz behintzat, figura hau mugitu eta badio plaza horietan daudenak ederki ari direla egiten. Kontua, baina, hori baino konplikatuagoa da: LPZren aldaketa argitaratu eta gero, hizkuntza eskakizuna egiaztaturik ez duen bitarteko langileak bete gabeko plazan geratzea ezinezkoa den bezala, horrelaxe jokatu beharko lukete kudeatzaile arduradun lanpostuekin ere eta hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten langilez hornitu.

Balmasedan bete gabe geratutako plaza zerbitzu eginkizunetara eskainiko du sailak. Eta horri lotuta, ba omen daude zenbait toki, txikiak direlako edo bi arduradun daudelako, zeinetan figura hori ezinbestekoa ote den birplanteatu behar den. Dirudienez, kalitate kontrolarekin arazoak daude eta idazkarietara harreman zailak aipatu zituen zuzendariak. Horiek gora behera, jarraitzen dute pentsatzen kalitatea bete-betean sartu behar dela Justizia Administrazioan. Horretarako Idazkaritza Teknikoa sortu dute, partaideak honakoak direla: Gobernu Idazkaritza, Gobernu Aretoa, Fiskaltza eta Justizia Saila. Zuzendariaren hitzetan, kudeatzaile arduradun figuraren inguruko hausnarketari ekin diote eta, haren iritziz, komenigarriagoa da kalitate kontrola idazkari judizialen esku geratzea.

2015EKO BETE BEHARREKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

Kontu hau sakon aztertuko dugu laster helduko zaizuen informazio orrian.